

UDALBATZA OSOA

Bilkura-akta

Ohiko bilkura

Data: 2016ko urtarrilaren 20a, asteazkena

2016ko otsailaren 10ean akta onesteko bilkuran egindako oharra biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (Eh Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE). Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna da bilkuraren buru.

Bertaratu ez diren zinegotziak: bat ere ez.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde zuretik eta arazko publikitatearekin. Honako hau da

Eguneko aztergaien zerrenda

1. Onestea 2015eko abenduaren 9ko (asteazkena) ohiko bilkura-akta.
2. Onestea 2015eko azaroaren 23ko ezohiko bilkura-akta (astelehena).
3. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
4. **Kultura, Turismoa, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Informazio Batzordea.**
5. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Informazio Batzordea.**
6. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Informazio Batzordea:**
7. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea**
 - 7.1. Kirolguneari buruzko erabakia, igerileku estalia.
 - 7.2. Hasiera batean onestea 2016 ekitaldiko aurrekontu orokor arrunta.

Azken puntua) Galderak eta eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2015eko abenduaren 9ko (asteazkena) ohiko bilkura-akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharrik egin.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2015eko abenduaren 9ko bilkura-akta.

Aldeko botoak: 11 (hamaika); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

2. Onestea 2015eko azaroaren 23ko ezohiko bilkurako akta (astelehena).

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharrik egin.

Hau erabaki da:

1) Onestea 2015eko azaroaren 23ko bilkura-akta.

Aldeko botoak: 11 (hamaika); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

3. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2015eko 249/15etik 263/15era bitartekoak. Eta 2016ko 1/16tik 13/16ra bitartekoak. Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

4. Kultura, Turismoa, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Informazio Batzordea.

5. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Informazio Batzordea.

6. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Informazio Batzordea:

7. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea

7.1 Kirolguneari buruzko erabakia, igerileku estalia.

Alkate jauna: Erabakia hartu aurretik bizilagunei egiazko informazioa emateko betebeharra daukagu, egiazkoa eta akatsik gabekoa, 2015 ekitaldira arteko gastuei buruzkoa. Eta, hori dela eta, igerileku estaliaren zerbitzuari buruzko datu ekonomikoak, eta zinegotzien bisitei buruzko informazioa jarriko dugu udaleko webgunean.

Gamarra jauna: Guk erabaketan aurrerapausuak eman nahi ditugu, baina aldi berean bizilagunak informatuta egotea nahi dugu.

Villanueva Gutiérrez andrea: Urriko bilkuran erabaki genuen erabakia hartu aurretik herritarrei berri eman behar zitzaiera. Bide batez, PP, EAJ eta PSE taldeei eskerrak eman nahi dizkiet, hein batean estalitako igerilekua eraikitzearen arduradunak izan direlako; igerilekua eraikitzeo erabakia hartu zuten, eta ez aireportu bat eraikitzearena. Gure irizpidea da lehenik herritarrei jakinaraztea eta, ondoren, Udalbatzak erabakia hartzea,

Hervías jauna: Behin eta berriz landu dugu gaia bilkuretan. Baina badirudi gobernu taldeari gaia kontrako eztarritik sartu zaiola. Buelta asko eman dizkio, baina ez da erabakirik hartu.

Alkatearen proposamena:

- 1) Eguneko aztergaien zerrendatik kentzea: kiroldegia dagokion erabakia, estalitako igerilekuari buruzkoa. Igerileku estaliari buruzko datu ekonomikoak webgunean ikusgai jarri arte, gaia aztergaien zerrendatik kenduko dugu.

Kasu bietan, eskaria bozkatu egin da, eztabaida amaitu ostean eta gaiaren funtsari buruzko bozkatzeari ekin aurretik.

Emaita honako hau izan da:

Aldeko botoak: 9 (bederatzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP),

Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstentzioak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Gehiengo sinpleak gaia aztergaien zerrendatik kentzearen aldeko botoa eman duenez, ez dago proposamena bozkatu beharrik.

7.2. Hasiera batean onestea 2016 ekitaldiko aurrekontu orokor arrunta.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, aurrekontuaren espedientean dagoen kontu-hartzailearen txostenaren berri eman du.

Gamarra jauna: Inbertsioak egiteko tartea txikia da, eta agian inbertsioak egiteko gaitasuna oztopatu duen azkar ustekoren baten errua izan da. Zaharkituta dauden hainbat azpiegitura daude, hala nola erretiratuaren etxea edo osasun-zentroa. Inbertsioak egiteko, eta elkarte eta taldeei zuzendutako dirua faltan botatzen dugu; baina programazio batekin, ez bakoitzak diru hori nahi duen bezala erabiltzea. Hurrengo urteetarako gauza hauek zuzenduko dituzuelako ustea daukat... Pertsona batek bere denbora udalean lan egiten ematen badu, ekonomiko konpentsatu behar zaio.

Villanueva jauna: Euskaraz hitz egin du.

Proiektua gogotik aztertu dugu, eta ikusi dugu autokarabanen aparkalekua amaitzea aurreikusten dela (gure koalizioak joan den legegintzaldian egindako proposamena). Bestetik, aurkeztu ditugun hiru zatikako zuzenketak onartu dira:

- Euskararen partida handitzea (euskaltegiko diru-laguntzak, itzulpenak, eta abar) 10.500 eurora.
- Partida berri bat: argiteria publikoa (Santa Maria eliz dorreko argiteria) 2.300 euroekin.
- San Justo parkea egokitzeko partida handitzea 2.300 eurotan.

Zuzenketa hauek San Justo parkearen eta San Pedro bidearen mantenurako zuzendutako kopurua bost aldiz handitzen dute. Halaber, euskararen partida ere handitu egiten da, proportzio berean. Eliz dorreko argiteria konpontzea eta berriz erabiltzea lortu dugu. Horrenbestez, aldeko botoa emango dugu.

Hervías jauna: Dokumentuak udalaren egiazko egoera islatzen du, eta teknikariek zehaztasun handiarekin egindako txostena da. Diru-sarreraren atalean aipagarria da JEZa handitu dela 100.000 euro baino gehiagotan, eta transferentzia arruntak jaitsi egin dira. Gastuen atalean ez dago berrikuntzarik azpiegiturretan, eta enplegua sustatzeko neurrien artean nabarmendu behar da etekina ateratzen dion lehenengo pertsona alkatea dela; izan ere, dedikazio partzialagatik 42.000 euro jasoko ditu. Guk aurka bozkatuko dugu; gure ustez, ez da egoerarik onena alkateen soldatetarako...

Alkate jauna: JEZaren igoera eguneratze lan baten ondorioa da, Aldundiaren aldetik. Gainontzeko zergak eta tasak bere horretan utzi dira. Ez dago diru gehiago inbertsioetarako; ez dugu ekonomiaren aldetik zortetik izan López lehendakariaren PP-PSE itunarekin; beste herri batzuekin alderatuta diru gutxiago jaso dugu (Lantziego, Ekora...).

Alkatearen dedikazioari dagokionez, talde Popularrak ez du lan egiten altruismoak bultzatuta; aurreko legegintzaldian proposatu zuen alkateordea liberatzea, baina udalbatzak ez zuen onetsi, eta ez da berriz proposatu. Udalbatzaren ezezkoak behartutako altruismoa... Dedikazioa ez da osoa izango soldatari dagokionez, baina bai denborari dagokionez. Edonola ere Laguardiako alkateak baino diru gutxiago jasoko du: 1.500 biztanlerekin 50.000 soldata proposatu du.

Jada ari gara lanean langabeziaren aurka; gaur Lanbideko arduradunarekin eta Enplegu saileko foru-zuzendariarekin bildu naiz, eta enpresetara joaten hasiko gara lan-beharrak ezagutze aldera, eta zuzenean kontratatze edo formatzeko diru-laguntzak eskaintzeko.

Villanueva jauna: Gure jarrera azaldu nahi dut alkatearen dedikazioari dagokionez. Aurreko legegintzaldian alkateordearen liberazioaren aurka bozkatu genuen, hori proposatu baitzen. Alkatearen liberazioa bozkatu izan bagenu, aldeko botoa emango genuke. Eh Bildu taldea alkateak herriaren alde lan egitearekin ados dago, eta, horrenbestez, lan hori egiteagatik dirua jasotzearen alde ere. Eta beste ohar bat: aurrekontu hauek herriaren alde egiten duen talde batek egin ditu, aurrekontu parte-hartzaileak nahi ditugu, hau da herriak herriarentzat egindakoak.

Alkate jauna: Gobernu taldeak erabaki du zer den lehentasunezkoa irizpide eta baldintza tekniko eta juridikoekin. Adibidez: takonerako eraikina botatzea, kontsumo-energetikoaren aldeko ekintzak... Aurreko legegintzaldiko proiektuak gauzatu behar ditugu ordainduta daudelako, eta ez ditugu alde batera utzi behar gure proiektuak ez direla jakinda ere.

Hervías jauna: Gobernura iritsi ginenean dedikazio osoa zuen zinegotzi bat zegoen, eta ez zen alkatea. Eta mila esker aurreko legegintzaldian zintzilik geratu ziren ideiak erabiltzeagatik.

Hau erabaki da:

Aurrekariak

1. 2016 ekitaldiko Aurrekontu Orokor Arruntaren proiektua talde politikoei igorri zitzairen 2015eko abenduaren 18an.
2. Talde politiko desberdinekin bilerak egin dira.
3. 2016ko urtarrilaren 13ko Kontuen batzorde berean Eh Bildu Oion taldeak hiru zuzenketa aurkeztu zituen.
4. Zuzenketak 2016 ekitaldiko Aurrekontu Arrunt Orokorrean jaso dira, eta aurrekontu-berdinketa mantentzen du.
5. Aplikatzekoa da otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua, Arabako lurralde historikoko toki erakundeetako aurrekontuei buruzkoa.
6. Halaber, aplikatzekoa da 7/85 Legearen 47.1 artikulua: aurrekontua behin-behinean onesteko ez da gehiengo absolutua behar.
7. Kontu-hartzailearen txostena.

Hau erabaki da:

1. Eh Bildu Oion taldeak aurkeztutako zuzenketak onestea.
2. Behin-behinean onestea 2016 ekitaldiko aurrekontu orokor arrunta.
3. Onestea Aurrekontu Exekuziorako Udal Araua.
4. Onestea lanpostuen zerrenda.
5. Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea otsailaren 9ko 3/2004 Arauan (Arabako lurralde historikoko toki erakundeetako aurrekontuei buruzkoa) zehaztutako epean.
6. Behin-behineko erabaki hau behin-betiko egitea alegaziorik aurkeztu ez bada. Alegazioak aurkeztu badira, hilabeteko (1) epean ebatzi beharko dira.
7. Behin betiko argitaratzea, eta espedientearen berri ematea Arabako Foru Aldundiari.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Aurkako botoak: 4 (lau); Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP).

Azken puntua) Galderak eta eskeak

Villanueva Gutiérrez jauna: Alkateari eskatu nahi diot dantzen inguruan zer bait egin dezan. Hamaika pertsonak dantzatu beharko lukete, ez hamaika gizonak. Utz dezagun matxismoa alde batera, eta ez gaitezen babestu ohituretan matxismoa inposatzeko.

Alkate jauna: Agian ni ez naiz pertsonarik egokiena gai honi erantzuteko. Nire semeak eta nire alabak bakoitzak taldea batean dantzatzen dute. Pertsonalki, asko kritikatzan ditut jarrera batzuk...

Dantza ez zen galdu; izan ere, neska asko egin ziren, dantzatzeko mutilak ez zeudenean. Alkatea ez nintzenean eman nuen nire iritzia. Kontu handiz ibili behar da ohituren gaia lantzerakoan...

Villanueva Gutiérrez jauna: Kristauak lehoietara botatzea edo ahuntz bat kanpandorretik botatzea ere ohiturak ziren, eta baztertu edo egokitu egin dira. Zuk gaia landu ezin baduzu, igorri nire eskaera Kultura zinegotziari, mesedez.

Hervías jauna: Oiongo SEPE bulegoa berriz irekitzeko neurriak hartzeko eskatzen du.

Alkate jauna: SEPEko zuzendariarekin bildu naiz, eta alkatetza eskaini nion SEPEren arazoa tokia baldin bazen. Bere esku dago lehengo udaletxea, beheko solairuko oztopo arkitektonikoak kendu ondoren. Arabako SEPEren arazoa langileena da. Logroñoko eta Haroko bulegoetan izapidetzea planteatzen ari dira, posta-kodeen arabera. Kasu horretan, eskatzaileek, euren gestioetarako Gasteiz edo Logroño aukeratzeko aukera izan zezaten proposatu nion.

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 20:55ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2016ko otsailaren 2an

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE:

El acta se redacta en el idioma en el que se desarrolla la sesión, castellano y se traduce al euskera por Euskalgintza Bulegoa S.L.